

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

581/2024 Foru Agindua, azaroaren 22koa. Karrerako funtzionarioak izendatzea, administrazio bereziko eskalako azpieskala lanbideetako kideak, klasean (laborategia, C taldea, C2 azpitaldea) karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bereziari baitagokio (2022ko EPEa)

Abenduaren 19ko 593/2022 Foru aginduaren bidez, onespena eman zitzaien Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorrean karrerako funtzionario gisa sartzeko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokion prozesu bereziak arautuko dituzten oinarri orokorrei.

Urriaren 29ko 469/2024 Foru Aginduaren bidez, karrerako funtzionarioak izendatu ziren, administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoak, teknikari laguntzaileen klasean (arte grafikoak, C taldea, C1 azpitaldea) sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bereziari baitagokio (2022ko EPEa).

Urriaren 29ko 466/2024 Foru Aginduan sartutako bi pertsonak uko egin diote hautaketa-prozesuan jarraitzeari.

Arabako Foru Aldundiko administrazio orokorreko karrerako funtzionario izateko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu berezia arautzen duten 2022ko lan-eskaintzako oinarri orokorretan (11.3. C) aurreikusitakoaren arabera, epaimahai kalifikatzaileak proposamen gehigarria egin du prozesua gainditu duen izangaia izendatzeko. Beraz, karrerako funtzionario izendatu behar da eskala honetan: administrazio bereziko eskalako azpieskala lanbideetako kideak, klasean (laborategia, C taldea, C2 azpitaldea).

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta ekainaren 1eko Foru Gobernu Kontseiluaren 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi ziren. Horrez gain, Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, dekretu horietan gutzietan xedatutakoarekin bat etorritik, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Karrerako funtzionario izendatzea, administrazio bereziko eskalako azpieskala lanbideetako kideak, klasean (laborategia, C taldea, C2 azpitaldea) sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bereziari baitagokio (2022ko EPEa), hura gainditu duten izangaiak, ondoren adierazten diren lanpostuei atxikita:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Izaskun San Vicente López de Luzuriaga	Laborategiko Langilea	1520.010
Itziar García del Campo	Laborategiko Langilea	1520.007

Bigarrena. Izendatutako pertsonak 2024ko abenduaren 2ean jabetu beharko dute esleitutako lanpostuez.

Ezarritako egunean lanpostua jabetzan hartzen ez badute, salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo dituzte deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Foru Aldundiko funtzionario izaera eskuratzeko.

Hirugarrena. Sartu berri diren funtzionarioak adjudikatutako lanpostuei atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortutakoa izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan –urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikulua-rekin lotuta– xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 22a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR